



NAZIO BILTZARRAREN ADIERAZPENA - 2019KO ABERRI EGUNA

Faxismoari eta kapitalari aurre egiteko ezker subiranismoa indartzeko garaia da

Aurtengo Aberri Egunaren testuingurua, faxismoaren eta kapitalismoaren oldarraldi berri batek zein hauteskunde politikoen zikloak markaturik dator.

Faxismoari eta kapitalari aurre egin behar diegu lantokietan, kalean eta hautetsontzietan. Ezkerreko subiranismoa indartu behar dugu honetarako eta, honekin batera, beharrezkoak dauzkagu ezkerreko eragile politiko, sindikal eta sozial subiranisten arteko konplizitate eta aliantzak Estatuko herrien artean.

Faxismoaren gorakada - Kapitalismoaren oldarraldi berria

Kapitalismoaren baitan hainbat krisi ari dira pilatzen: zaintzarena (lan guztiak aitortu eta banatu beharra) energetikoa (erregai fosilen agorpena), ekologikoa (klima aldaketa eta ekosistemaren suntsiketa), geopolitikoa (gerrak eta interbentzioak), demografikoa (migrazioak). Era berean, ziklo ekonomikoaren barruan krisi berri baten aukera indartzen ari da. Kapitalaren eta bizitzaren arteko talka gero eta bortitzagoa da, beraz. Sistema honek bizi eta lan baldintzen prekarizazioa dakar elite ekonomikotik kanpo dagoen ororentzat, eredu hau ez da jasangarria jendartearen gehiengo zabalarentzat, ezta baliabide naturalei dagokienez ere.

Krisi sistemikoaren aurrean kapitalismoak kapitalismo gehiagorekin erantzuten du eta hor topatzen du lekua faxismoak. Sistema kapitalista krisi sakon batean dagoenean nagusikeria eta muturreko dominazioa baitakar faxismoak.

Mundu mailako fenomeno da: Trump, Bolsonaro, Fronte Nazionale... Estatu bakoitzean bere forma hartzen du; Espainiako estatuan, hiru hortzeko eskuinaren (PP, CS, Vox) eskutik dator. Hiru ezaugarri nagusi ditu: lurralde batasuna, emakumeen oinarritzko eskubideen zapalkuntza eta migranteen kontrako jarrera.

Euskal langileok ez gara demokrazian bizi; bi dira baieztapen horretara eramaten gaituzten egiturazko arrazoiak, bereizi ezinak direnak: elite ekonomikoaren neurrira eraikitako eredu ekonomiko eta soziala, bata, eta Estatuarekiko menpekotasuna, bestea. Espainiako Estatuaren batasunari eustea, 78ko erregimenarekin ez apurtzea, egungo sistema kapitalista eta heteropatriarkala indarrean jarraitzeko bermerik egokiena baita.

Faxismoaren eta kapitalaren oldarraldiak demokrazia falta hau areagotu egiten du. Inboluzio antidemokratikoa da: inboluzio soziala (lan eta bizi baldintzen prekarizazioa); patriarkala (feminismoaren aurkako erreakzio kontserbadorea) eta nazionala (birzentralizazioa eta nazio zapaketaren areagotzea).

Espainiako estatuaren batasuna denaren gainera jartzen dute Estatu alderdi politikoek eta botere faktikoek, Konstituzioaren eta legalitatearen izenean. Legalitate hori ukiezina da autodeterminazio eskubideaz, herrien erabakitze eskubideaz ari bagara, baina legalitate hori oso erraz eta inolako eztabaida sozialik gabe aldatzen da botere ekonomikoen mesedetan.

Kataluniako independentisten aurka egiten ari diren epaiketa independentista guztion aurkako epaiketa da, areago, demokrazian sinesten dugun guztion kontrako epaiketa da. Afera guztiz politikoa da eta irtenbide politikoak eskatzen ditu, herriari hitza ematea ez baita delitua, eskubide demokratikoa baizik.

Legalitatea hitzetik hortzera darabilten berberak indarrean dagoen legea ez betetzearen alde egiten dute, euskal preso eta iheslariekiko salbuespenezko legedia betiketzearen alde agerturik edota 40 urte beranduago betetzen ez diren Autonomia Estatutua eta Nafarroako Hobekuntzaren kasuan. Altsasuko auzian gertatu moduan, justizia nahieran erabiltzea da Estatuaren izaera antidemokratikoaren beste adierazle bat.

Euskal Herrian faxismoari eta kapitalismo heteropatriarkalari planto

Testuinguru honetan bi aukera daude:

1. Beldurra nagusitzea, kikiltzea eta inboluzio ufadaren aurrean babes mekanismo gisa jarrera kontserbadoreak nagusitu eta dagoenari eusteko borrokan murgiltzea.

PSOE saiatuko da eskuinaren mehatxuaren beldur hori hautetsontzietan kapitalizatzen. Eta, Hego Euskal Herriaren kasuan, EAJ eta Geroa Bai kokatzen ditugu apustu horretan. Neoliberalismoari aurre egin eta eraldaketa sozialaren alde egiten dugunontzat, antzua den bidea.

2. Sistema bidegabe honi hortzak erakutsi eta eraldaketa sozialaren aldeko borroka indartzea.

Euskal herritarren gehiengoak bigarren aukera honen alde egin du. Erasoei agenda propio batekin erantzuten ari gara, indarra eta determinazioa badugu. Azkenaldian mobilizazio jendetsuak ikusten ari gara. Gehiengo bat beste eredu ekonomiko eta sozial baten alde mobilizatzen ari da kalean. Bizitza erdigunean jarriko duen eredu, lan guztien aitortza eta banaketaren alde egingo duena eta sortzen den aberastasuna hobe banatuko duen eredu. Justizia sozialean eta feminismoan oinarritutako eredu berria.

Bizitzaren prekarizazioari aurre egiteko borroka soziala kalean indartzen ari da eta lantokietan gatazkak ugaritzen. Ugaritu egin dira greba eta mobilizazioak, horietariko asko, sektore feminizatuetan. Eta emaitzak izaten ari dira, akordio duinak lortzen ari gara.

Borroka feminista indartu egin da. Iazko plantoa mugarriz izan bazen, aurtengo greba feministak bultzada berria eman die aldarrikapen feministei, emakumeon diskriminazio egoeraren gaineko argazki osoa proiektatzeko aukera eman digu, lan merkatu arautuan eta lan merkatu araututik kanpo dugun errealitatea ikusarazi eta politika feminista eraginkorrek eskatzeko.

Sindikatu eta mugimendu feministaren arteko aliantzak sendotzeko balio behar du. Era berean, LABen sindikalismo feministari bultzada berria eman dio borroka feministaren indartzeak.

Borroka eredugarria da, pentsiodunen borroka den bezalaxe. Tinko eusten diete mobilizazio jendetsuei. Pentsioen arazoa langile klase osoaren arazoa da, gaurko lan baldintza kaskarrak etorkizuneko pentsio prekarioak direlako, eta hori ulertuta, aukerak sortzen ari gara lan duinaren eta pentsio duinen aldeko borroka bateratzeko. Horretarako, besteak beste, 1.080 euroko gutxieneko pentsioen defentsari 1.200 euroko gutxieneko soldataren aldeko borroka gehitu eta indartzeko unea dela uste dugu.

Erronka mardula dugu aurrean: indarrak metatzea eta borroka horien guztien arteko artikulazioan asmatzea. Sistemaren kontrako eta eredu berri baten aldeko borroka direlako guzti-guztiak.

Aktibazio sozial hori aldaketa politikoarekin lotu behar dugu. Hemen erabaki nahi dugu nolako lan harremanak, pentsio sistema, politika feminista, sektore publiko edota ekoizpen ereduak nahi eta behar dugun. Lan harremanetarako eta babes sozialerako euskal esparru eta esparru sozioekonomiko propioak eraiki ahal izateko marko juridiko politiko berriak erdiestea dugu helburu:

- EAEn estatus politiko berria. Egungo markoa gainditu egin behar da. EAeko Legebiltzarrean, Estatutu Politiko berri baterako oinarri eta printzipioak adostu direla, trasferentzien eztabaida garaiz kanpoko da. Adosturikoa testu artikulatura eraman behar da. Bertan, enplegu eta babes sozial gaietan ahalmen legegile osoa eta eskuduntza guztiak ditugula ziurtatu behar da. Horrela ez bada, iruzur berri bat izango da langileontzat.
- Nafarroan erregimenaren mehatxua bueltan da. Estatuko eskuina hauteskunderi begira elkartu egin da (UPN, PP, Cs aliantza). UPNko foruzaleak, birzentralizazioaren alde eta konbenioaren aurka azaldu diren Cs-ekoekin elkartuta. Nafarroa estatu auzia dela agerian utzi dute.

Nafarroan lehen erronka erregimena instituzioetatik kanpo mantentzea da. Ezinbesteko baldintza da hori aldaketa sozialerako, baina ez da nahikoa. Legegintzaldi honek erakutsi du bi muga nagusi izan dituela Nafarroako aldaketak: Estatuarekiko menpekotasuna eta patronalaren eragina Geroa Bairen politika ekonomikoan eta zerga politikan. Muga horiek gainditu eta aldaketatik eraldaketa sozialerako bidea egin behar da eta demokratizaziotik burujabetzarako bidea.

- Ipar Euskal Herrian ere eremu propioaren alde borrokan. 2017an sorturiko Euskal Elkargoa urrats politiko garrantzitsua izanik ere, sozialki bide oso bat dago egiteko. Elkarriketa sozial gune bat sortu bada ere, harremanetarako erabaki guneek Euskal Herritik kanpo diraute. 2012tik Ipar Euskal Herriko lan harremanetarako esparru bat aldarrikatzen du LABek, baina Frantses Estatuko beste sindikatu gehienek, langileen interesak ahazturik eta haien interes propioak defendatzearen, "CPL" bezalako negoziazio eremu propio bat ezeztatzen dute oraindik. Bitartean, Parisetik, Bordeletik edota Pauetik negoziatzen dute eta erabakitzen dute gure geroaz.

Prekaritatea eta pobrezia borrokatu nahi baditugu, eta eraldaketa sozialean aurrera egin nahi badugu, lan harremanetarako eta babes sozialerako gure esparrua sortu behar dugu, baita Ipar Euskal Herrian ere. Enpresaz enpresa, herriko etxez herriko etxe, LAB aurkeztu eta indartuz joango gara erabakitzeke

eskubidea langile gehienei emateko. Hori izango da gure erronka nagusia ondoko aste, hilabete eta urteetan.

Aliantzak ezkerreko subiranismoan

Faxismoari eta kapitalari lantokietan, kalean eta hautetsontzietan aurre egin behar zaie ezker soberanismoa indartzen. Estatuko herrien artean, ezkerreko eragile politiko, sindikal eta sozial subiranisten arteko konplizitate eta aliantzak beharrezkoak dira: demokrazian aurrera egiteko, herrien erabakitzeko eskubidea aitortzeko, justizia sozialean eta feminismoan oinarrituko den eredu ekonomiko eta sozial berri baten aldeko borroka indartzeko eta, hala, urratsez urrats, Euskal Errepublika sozialista, feminista eta euskaldunerantz bidea egiteko.

Ezkerreko subiranismoaren eremu politikoan Europako zein Estatuko hauteskundeetarako erdietsi diren aliantzak norabide egokian doazela pentsatzen dugu. Herrien autodeterminazioa defendatzen duten Estaturik gabeko nazioetako ezkerreko subiranismoaren indar metaketak Euskal Herria, Katalunia, Galiza zein Estatuko gainontzeko herriak baldintza hobeagoetan jartzen ditu Estatuarekin egin beharreko konfrontazio demokratikoari begira, baita herrien burujabetza eta demokratizazio bidean aurrera egiteko ere.

Erronka handiak ditugu esku artean. Herri eta langile gisa ditugun erronkei erantzuteko ere, hauteskunde sindikaletan euskal gehiengo sindikalaren blokea indartuta atera izana garrantzitsua da. Egungo testuinguruan, sindikatu bakoitzak gure kabuz egiten dugunaz harago, kontrabotere sindikalismo abertzalea interpelatua baitago.

Bizitzaren prekarizazioari eta bizi dugun inboluzio egoerari aurre egingo dion eraldaketa sozialerako eta aldaketa politikorako estrategia integrala izan behar du sindikalismo abertzaleak, LAB horretan ari da.

Hiru ezaugarri nagusitan laburbiltzen da, gure ustez, estrategia hau: lantokietan borroka sindikalerako gaitasun handiagoa izatea; langile klasearen batuketaren alde egin eta eraldaketa sozialaren aldeko borrokan gaudenon arteko aliantzak sustatzea, eta demokrazia eta burujabetzaren aldeko urratsak egitea.

Lantokietan borroka sindikalak ugaritu egin dira. Langileak borrokara batzeko aldarrikapenak baditugu: 1.200 eurotako gutxieneko soldata eta soldata arrakalarekin amaitzea, lan guztien aitortza, lanaldia murriztua lan guztien banaketa eta lan guztiak duintzea, diskriminazio ororekin amaitzea edota lanetik bizirik eta osasuna galdu gabe bueltatzeko proposamenak.

Borroka sindikalak emaitzak izaten ditu eta hau akordio duinetan gauzatzen ari da. Greba da langileok borroka sindikalerako dugun bitarteko nagusia. Patronalaren nagusitasunari aurre egin eta posizioak mugitzeko, presio soziala areagotu behar da. Grebak beharrezkoak dira eta, greba horiek eraginkorrak izateko, ezinbestekoa da lan gatazkak sozializatzea, gatazkan dauden langileekiko enpatia giroa sortu eta elkartasuna bilatzea, instituzioak interpelatzea edota greba osagarrituko duten bestelako dinamika batzuk sustatzea.

Langile klasearen berrosaketa bultzatu behar dugu. Elite ekonomikotik kanpo dagoen orok azken urteetan ikusi du bere lan eta bizi baldintzak kaskartu direla. Zatiketa eta indibidualizazioari aurre egin behar zaio, lan munduan gertatzen diren hainbat lan egoerari, hainbat subjektibitate egoerari (ustezko autonomoak, bekarioak, lan mundutik sartu irtenean dabiltzanak, finkoak eta behin behinekoak, prekaritate modu berriak, etxeko langileak....) aurre egiten.

Era berean, aliantzak sustatu behar ditugu eraldaketa sozialaren alde borrokan dauden kideekin, mugimendu feministarekin, pentsiodunekin, gazteekin edota migranteekin.

Azkenik, sindikalismo abertzaleak, autodeterminazio eskubidearen, erabakitze eskubidearen, aldeko apustu argia egin behar du. Burujabetza prozesuaren aldeko apustu argia. Burujabetza prozesu neutrorik ez dago eta prozesu horrek gehiengo sozialari bizimodu duina berma diezaion, izan beharreko eskaintza sozioekonomikoan ere egingo dugu ekarpena.

Ezker soberanismoaren eremu politiko, sindikal eta sozialaren artean eraiki beharreko aliantzetan berresten gara eta, horren ildotik, 2017ko iraileko adierazpenean eraldaketa sozialerako burujabetza prozesua sustatzeko geureganatu genituen konpromisoek LABentzat ipar-orratz baliagarria izaten jarraitzen dute.

Euskal Herria, 2019ko apirilaren 15ean